

BCBL BASQUE CENTER ON COGNITION, BRAIN AND LANGUAGE FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Fundación BCBL, Basque Center on Cognition, Brain and Language.

IFK

G75051300

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2011ko uztailaren 14an eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen fundazioa [«Fundación BCBL, Basque Center On Cognition, Brain And Language» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2012ko otsailaren 15eko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

7220 Ikerketa eta garapen esperimentalak giza eta gizarte-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Neurozientzia kognitiboaren alorrean, eta bereziki hizkuntzaren alorrean, Euskal gizartearentzat eta nazioarteko zientzia-garapenerako interesgarri diren diziplina arteko funtsezko ikerketa bideratu eta estrategikoak egitea du helburu sozial nagusizat, baita zientzia-komunitate horrentzat eta oro har gizartearentzat plataforma egokia izatea ere, oinarrizko ikerketa horretatik eratorritako jakintza transferitzeko eta ondoren aplikatu eta garatzeko erraztasunak emateko baliagarri.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Azterketa-fasean dago, sailkatu gabe oraindik.

Fundazio-zuzkidura

145.000 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Fundazioa eratzean bazkide bakarra den BCBL - Basque Center On Cognition, Brain And Language elkarteak egindako diru-ekarpenak osatzen du fundazio-zuzkidura. Hasiera batean, ondare-ekarpena, zentzu hertsian, 35.000 € izan zen, eta lehen jardun-programarako ondare-ekarpena, berriz, 110.000 €.

Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritzza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Itziar Alkorta Idiáquez andrea	Presidentea. Ikerbasque fundazioa.
Jon Uriguen Ansola jauna	Presidenteordea. Gipuzkoako Foru Aldundia.
Amaia Maseda García andrea	Idazkaria. EHU.
José M ^a Villate Blanco jauna	Innobasque.

2013ko ekitaldiko urteko kontuak

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	101.039 €
Ondare garbia	95.343 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	2,49

Sozietatearen helbidea

Mikeletegi pasealekua, 69, 20009 Donostia (Gipuzkoa).

Webgunea

www.bcbl.eu